

# Gure akademia ustela

Alex Gurrutxaga

**G**enero polizikoa eta historikoa produktukomertzial behinenak bihurtu direnean, hala liburu nola pantailetan, nabarmendu egin behar dira generoko lan literarioak. Jon Alonsoren *Hiri hondakin solidoak* eleberririk beltzak ezer gutxi du ohiko produktuek sorrarazten duten konplazentzia eta katarsitik; dibertsioari uko egiten ez dion errealismo kritikoa da bere azken nobeletakoa.

Trama askatu gabe, esan dezagun Euskaltzaindira iristen diren mehatxu anonimo batzuen kontua eta katedradun baten hilketa argitu behar dituela Enekoitz Ramirez *Lanbas*-ek. Ikertzaile independentea-edo da Lanbas, eta ez dauka zerikusirik detektibe gogor ezagunekin: nahiko patetikoa da, denok bezain antiheroia, tipo alu xamarra, baina jantzia; historialunarekin –ezaguna dugu Alonsoren aurreko lanetatik–, lotsagabetasunez ondo hornitua, sinpatikoa da nola hala.

Digresio kritikoak dira eleberriarren elementu inportante bat. Asko dira, eta narrazioa maiz urruntzen da haritik, aurreneko ataletan batez ere. Kritikak ez dira panfletoan erortzen –edo gehienetan ez, bederen–, Lanbasek distantzia hartzen baitu, eta ez baita beti bera kritika egiten duena. Baina, halere, batzuetan desoreka handia da; adibidez, nobela abiatu eta berehala (20. orrian) pausa bat gertatzen da, 40 orri



**'Hiri hondakin solidoak'**

**Egilea:** Jon Alonso.  
**Argitaletxea:** Txalaparta.

iraute duena. Halakoetan trama lausotu egiten da egurra partitzen duten pasarte luzeen menpe.

Kritikaren jopuntuan Euskaltzaindia eta Unibertsitatea daude batez ere; lehendik, besteak beste, U. Apalategi, I. Borda edo P. Salaburuk jo dute gai horietara. Alonsoren kasuan, ordea, ez daude salbu gainerako zintzoen saldoak ere: prentsa, polizia eta prostituzioa, adibidez. Informazio trafikoa, negozio ustelak eta kontrol sistemak ikusten dira nonahi.

Liburuan agertzen diren lohikeria, sinesgarria ez ezik, erreala dela apustu egingo genuke. Unibertsitateko jaun- andere txit agurgarriren artean lapur banden etika dela nagusi, hori segurua; baina kontua da kritika modu orekatuan ote datorren nobelaren baitan. Ene ustez, zati handi batean, ez. Aldiz, kontrara, kritika oso eraginkorra da zeharkakoa denean, erakutsi egiten zaigunean diskurtsua bota beharrean; adibidez, ikusten ditugunean biltzarretik biltzarera dabilzan akademikoak. Edonola ere, irakurleak des-

berdinak izaki, Urliari gehiegia gerta dakioken kritika neurritsu ikus dezake Berendiak.

Bestalde, kontamoldea oso onada. Lanbas bera da narrazitzailea, eta begirada ironikoa dauka, desalienatua, sarkastikoa askotan. Hortxe dago eleberriarren puntu indartsuena: Lanbasen izaerak eta begiradak kritika eta umorea uztartzen ditu. Eszena asko dira parodiko edo burleskoak, eta Alonsoren luma konfundiezina da horretan –baita, bide batez, marka linguistikoa ere–. Gai-nontzean, kontakteta nahiko lineala da, eta egitura borobila, Bilbo Plaza Barrian hasi eta hantxe amaitzen baita. Istoria dinamikoa da, eta espazio publikoek garrrantzi handia daukate –Bilbo, Bartzelona, plazak, unibertsitatea, eta abar–; horretan ere ongi ikusten da nobelaren eite soziala. Bartzelonaren kasuan, adibidez, urbanismoa eta gentrifikazioa kritikagai bilakatzen dira.

Azken batean, genero beltzaz produktukomertzialek ematen duten irudi pobre, garatugabe eta matxistari kolorea eta txispa ematen dio Jon Alonsok.

Txispak kalanbreren bat ematea, ez batere harritu.



**'Sozialismoaren historia labur bat'**

**Idazlea:** Gorka Etxebarria Dueñas.  
**Ilustratzailea:** Iñaki Rifaterra Santamaria.  
**Argitaletxea:** GITE.

**G**ITERen Julio Araluze bekaren laguntzaz idatzi zuen liburu hau Etxebarriak. «Historia luze bat kapitulu laburretan kontatzen digu, narratiba freskoaz, ikuspegi zurrunetatik ihesi eta euskaraz, esparru honetan ohi-koa ez denez», jakinarazi dute liburuaren argitaratzaileak.



**'Dublindarra'**

**Egilea:** Alfonso Zapico. **Itzultzaileak:** Bego Montorio eta Eskarne Mujika.  
**Argitaletxea:** Astiberri.

**J**ames Joyceren bizitzaren berri ematen du nobela grafiko honek, bizitza horretako pasarteak idazlearen obra ezagun batzuekin lotuz. Komiki arloko Espainiako Sari Nazionala eskuratu zuen egileak 2012an, jatorrizko lanarekin (*Dublinés*).



**'Nafarroan filosofatuz'**

**Egilea:** Piarres Aintziart.  
**Argitaletxea:** Elkar.

**N**afarroako Donejakue bidea inoimarriz hartzu, gai askoren inguruan idatzi du egileak liburu honetan. «Funtsean, ostatu batean edo mintzatzen garelarik, bakoitzak bere bizi edo, bere iritzia ematen du», azaldu du egileak. «Beraz, zergatik ez liburu batean?».

## Paperean merkea, edukian aberatsa

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**Z**ientziaren definizioa axioma honen araberrakoa da: zientziarik zientifikoena matematikara gehien hurbiltzen dena da. Arloaren arabera, muga zabal-tzen joango da, soziologia edo filologia bezalako ikasketetaraino.

Dibulgazio liburuetan, oso bestela, banaketa hau proposatu ohi da: zientzia esaten denean biologia adierazi ohi da, eta, kasu eskuzabalenetan, geologia, kimika eta fisika apur batekin jantzita egoten da.

Esku artean dugun liburuan zientzia aipatu era eskuzabalean ulertu behar dugu.

Testu eta infografiak konbinatuta ehun lezio magistral ematen dira, harrigarriki xaloak diren azalpenekin: unibertsitatearen eten-gabeko handitzea, argi urtea, ebo-

luzioaren teoria, fisika newtondarrak, eta beste hamaika kontu korapilatsu, edonork ulertzeko eran. Ikaragarriko lana da. Edizio datuetan argitzen dutenez, 19 lagunen ahaleginak sortutako obra da. Txapela kentzeko modukoa.

Baina bere muga azkartasunean dauka: gaur ikasi eta bihar ahaiztuko dugun azalpen heterogeneo andana huts bat bihurtu liteke, ikasketa pausatua eta sakonagoetarako zubi gisa erabili ezetean.



**'100 kontu ondo ezagutzeko zientzia'**

**Egilea:** Batzuen artean. **Ilustratzailea:** Batzuen artean. **Itzultzailea:** Nagore Irazustabarrena. **Argitaletxea:** Ttartalo.

## Papera garestia, edukia...

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero


**L**ur eta Amets: *Euskal Herriaren historia* liburukotea zortzi arlo nagusitan banatuta dago. Ardatza kronologia du, eta zortzi arloak iragan urrutietatik gaurko garaietaraino egituratuta daude (orrialde kopurura): giza ebo-luzioa (10), historia *politikoa* (50), hizkuntza (16), urbanismoa (20), sozioekonomia (44), erlijioa (18), aisia (8) eta artea (28).

Orri biko guztiak mural erako ilustrazioekin daude, eta testua ganean jarrita dago, noiz tinta beltzean noiz zurian. Orrialdeko bi zutabe, eta paragrafo bat letra larriz. Bi orritik behera, aparteko testu labur bat, goiburuekin.

Testuetan dagoen informazioa, oro har, gai eta arlo bakoitzaren topikoen zerrenda da, askotan zientifikotik gutxi duten usteekin

*jantzita*. Erabiltzen den hizkera erabat desegokia da ezagutza liburuentzat, adjektibo zuzia, eta zehaztapenik eza jatorriaren keinu-eta adibidea nahi baduzue, irakurri *Lurraren sorrera* II. orrialdean.

Informazioa emateko moldeak ez dator bat gaur egungo jakintza liburuaren egitura dinamikoarekin; alderantziz, 80ko hamarkada arte hainbeste zabaldu ziren entziklopedien formatu zurruna erabiltzen da, eta irakurketa oso pisua bihurtu.



**'Lur eta Amets'**

**Egilea:** Batzuen artean.  
**Ilustratzailea:** Batzuen artean.  
**Argitaletxea:** Elkar.